

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Foru Gobernuak eztabaida publikoko aldia zabaldu du 2015-2025 aldirako Hondakinak Kudeatzeko Planak egiteko

Eztabaidaren gaikako sei saio eta bost saio tekniko egingo dira Planaren eduki nahiz proposamenen zenbait alderdiren gainean lan egiteko

Martes, 26 de mayo de 2015

Nafarroako Gobernuak, maiatzaren 28tik aurrera, 2015-2025 aldirako Hondakinak Kudeatzeko Plan Integratua egiteko eztabaida-aldia hasiko du. Maiatzaren 28tik irailaren 30 era egingo den eztabaidaren gaikako zenbait saio izango dira bertan, uda-garaian etenaldi bat eginez.



Gongorako zentroko hondakinak.

Eztabaidako saioen gaiak, pertsona eta erakunde interesdun guztientzat zabalik daude, etxeko eta merkataritzako hondakinetan oinarrituko dira funtsean, eta honako hauek jorratuko dira, besteak beste: Planaren helburuak, hondakin prebentzioa, Gaika Bildutako Frakzio Organikoa (FORS), errefusak edo industria-hondakinak, bai eta prozesuan zehar sor daitezkeen beste zenbait ere. Zehazki, maiatzaren 28an planaren helburuak aztertuko dira; ekainaren 5ean prebentzioa jorratuko da; ekainaren 11n gaika bildutako frakzio organikoa, eta ekainaren 25ean, errefusei buruz hitz egingo da. Irailean, hil horren 10 eta 17an, azpiegituraz ariko dira, eta 30ean, industriako hondakinari buruz.

Aldi berean, berariazko gaiei buruzko jardunaldi teknikoak egitea aurreikusten da, Aparatu Elektrokoak eta Elektronikoen Hondakinak (RAEE) araudi berriaren eraginak, esaterako, edo hondakinak Estatuko lurraldeko barnealdean eramatea, 180/2015 Errege Dekretuaren arabera, edo zerga-tresnak hondakinak kudeatzeko kudeaketako hierarkia betez.

Eztabaidako gaikako saioak nahiz jardunaldi teknikoak amaitzen direnean, azken itzulerako jardunaldia egingo da, eta bertan Gobernuak planaren zirriborroa aurkeztuko du, prozesu guztian zehar jasotako eta jaso gabeko proposamen nagusiak era arrazoituan justifikatuz. Zirriborro hori jendaurrean jarriko da.

51/2015 [Foru Agindu](#)aren bidez, otsailaren 11koa, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko kontseilariarena, PIGRN 2015-2015 egiteko prozedura formalki hasi zen eta, horretarako, ekainaren 21eko

Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko 51/2012 [Foru Legea](#) aintzat hartu da. Hala, Planaren izapidetze berrirako zaindu eta jaso dira, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernu Irekiko Atarian zabadutako partaidetza-prozesuan egindako ekarpen eta iradokizunak 2010-2020 aldirako Nafarroako Hondakinak Kudeatzeko Plan Integratua berrikuste aldera. Gainera, atarian hamabost egun balioduneko beste partaidetza-epe bat zabaldu zen, Plan berria idazteko orduan kontuan hartu beharreko iradokizunak egin, laguntzak eman eta iritziak plazaratzeko. Nolanahi ere, Plana egin eta idazteko fase goiztiar honetan parte hartzeko aukera zabalik dago oraindik, iradokizunak egiteko xede horretarako sortutako Lantalde eta Partaidetza Taldean sartuz.

Lantalde hori, irekia, 2010-2020 PIGRNen Jarraipen Batzordeak izena emandako pertsonak eta erakundeak osatzen dute, eta hala egitea eskatu duten guztiek ere. Administrazio eta enpresa publikoetako ordezkariak osatzen dute, sindikatuek, herritarren elkarteak, talde ekologistek, enpresa-elkarteak, hondakinen kudeatzaileak, unibertsitateak, aholkulariek, lanbide-elkargoak eta enpresek.

Jarraipen Batzordea 2011ko ekainaren 29an eratu zen, 2010-2020 aldirako PIGRNren partaidetza-prozesuaren ondoren, eta horretarako inplikaturako eragileak identifikatu ziren, uztailaren 18ko 27/2006 Legea ezartzen duenaren arabera; lege horren bidez, informazioa eskuratzeko, partaidetza publikoko eta ingurumen-arloan justizian sartzeko eskubideak arautzen dira.

Lantaldea eta Partaidetza Taldea PIGRN egiten den prozesu guztian zehar zabalik izango da bertan sartu nahi duten pertsona edo erakunde guztientzat eta, hori egiteko, eskaera egin beharko dute ondorengo helbide elektronikoan: residuos@navarra.es

Prozesua eta haren izapidetze-egoera zein den jakiteko [Gobernu Irekiaren Atari](#)ra jo beharko da prozesuan zehar, eta dokumentazioa [hondakinen gaikako atari](#)an eskuragarri izango da, Nafarroako Gobernuaren webgunean.